

ERAIKINETAKO IRISGARRITASUN- BALDINTZA TEKNIKOAK



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala



www.eginez.org

“Gida hau Irisgarritasun Baldintzei buruzko Arau Teknikoak onartzen dituen Dekretuaren (apirilaren 11ko 68/2000) III. Eranskina da, “Eraikinetako Irisgarritasun Baldintza Teknikoak” izenekoa. Gida argitaratzea erabaki dugu, gai horri buruzko kontsulta ugari egiten dituzuelako, eta herritarrek jakin nahi dutelako nola diseinatu behar diren eraikinak urritasun fisikoa duten pertsonak haietara sartu ahal izango direla eta eraikinak erabili ahal izango dituztela bermatzeko; kanpoko espazioak, eraikinetako sarbideak, barnealdeko komunikazioak, gelak, higiene-zerbitzuak, aldagelak, dutxak, altzariak, aparkalekuak, egoitza-eraikinak, etab.”

HONAKO HAU 2016-EKO AZAROAN ARGITARATU ZEN, ETA BERE EDUKIA ORDUAN INDARREAN ZEGOEN ARAUDIAN DAGO OINARRITUTA.

AURKIBIDEA

- 1. artikulua. **XEDEA.**
- 2. artikulua. **APLIKAZIO-ESPARRUA.**
- 3. artikulua. **KANPOKO ESPAZIOAK.**
- 4. artikulua. **ERAIKINAREN BARRUALDERAKO SARBIDEA.**
 - 4.1. **SARBIDEAK.**
 - 4.1.1. **KANPOKO SARBIDE-ATEAK.**
 - 4.1.1.1. Larrialdi-irteerak.
 - 4.1.1.2. Irekiera automatikoko atearak.
 - 4.1.1.3. Ate beiradunak.
 - 4.1.1.4. Torniketearak, langak edo ta sarrera edo irteera kontrolatzeko bestelako elementuak.
 - 4.1.1.5. Kisketak, eskulekuak eta beste antzeko manipulazio elementuak.
 - 4.2. **ATEONDOAK.**
- 5. artikulua. **BARNE-KOMUNIKAZIOAK.**
 - 5.1. **BALDINTZA OROKORRAK.**
 - 5.2. **KOMUNIKAZIO HORIZONTALAK.**
 - 5.2.1. **KORRIDOREAK.**
 - 5.2.2. **ATEAK.**
 - 5.2.3. **LEIHOAK.**
 - 5.3. **KOMUNIKAZIO BERTIKALAK.**
 - 5.3.1. **ESKAILERAK.**
 - 5.3.2. **ARRAPALAK.**
 - 5.3.3. **ESKUBANDAK.**
 - 5.3.4. **IGOGAILUAK.**
 - 5.3.4.1. Sarbide-plataforma.
 - 5.3.4.2. Kabina.
 - 5.3.4.3. Iggailuaren atearak.
 - 5.3.5. **ASKOTARIKO ELEMENTU MEKANIKOAK.**
 - 5.3.5.1. Eskailera mekanikoak.
 - 5.3.5.2. Tapiz pirikariak.
 - 5.3.5.3. Plataforma jasotzaileak.
 - A) Lekualdaketa bertikaleko plataforma jasotzaileak.
 - b) Lekualdaketa zeiharreko plataforma jasotzaileak.
- 6. artikulua. **DEPENDENTZIAK.**
 - 6.1. **BALDINTZA OROKORRAK.**
 - 6.2. **JENDEARI ERANTZUTEKO EREMUAK.**
 - 6.3. **PUBLIKOA BILTZEKO ARETOAK.**
 - 6.3.1. **ESTADIOAK ETA HARMAILAK.**
 - 6.3.2. **ATSEDEN-IGERILEKUAK.**

- 7. artikulua. HIGIENE-ZERBITZUAK, ALDAGELAK ETA DUTXAK.**
 - 7.1. BALDINTZA OROKORRAK.
 - 7.2. KOMUNAK.
 - 7.3. ALDAGELAK, DUTXAK ETA ANTZEKOAK.
- 8. artikulua. ALTZARIAK.**
 - 8.1. BALDINTZA OROKORRAK.
 - 8.2. MOSTRADOREAK ETA LEIHATILAK.
 - 8.3. MAKINA SALTZAILEAK.
 - 8.4. TELEFONOAK.
 - 8.4.1. MUGIKORTASUN URRIA DUTEN PERTSONEK ERABILTZEKO MODUKO TELEFONOA.
 - 8.4.2. KOMUNIKATZEKO ZAILTASUNAK DITUZTEN PERTSONENTZAT EGOKITUTAKO TELEFONOA.
 - 8.5. INSTALAZIO ELEKTRIKOA ERAGITEKO ETA FUNTZIONARAZTEKO MEKANISMOAK ETA ALARMAK.
 - 8.6. KUTXAZAINAK ETA BESTELAKO ELEMEN-TU ELKARRERAGILEAK.
 - 8.7. INFORMAZIOA ETA SEINALEZTAPENA.
- 9. artikulua. APARKALEKUAK.**
- 10. artikulua. EGOITZA-ERAIKINAK.**
 - 10.1. BALDINTZA OROKORRAK.
 - 10.2. ETXEBIZITZEN BARRUKO BALDINTZAK.
 - 10.2.1. BALDINTZA KOMUNAK.
 - 10.2.2. GURPIL-AULKIA ERABILTZEN DU-TEN EDO MUGIKORTASUN URRIA DUTEN PERTSONENTZAKO ETXE-BIZITZAK.
 - 10.2.2.1. Ateak eta pasagune libreko baoak.
 - 10.2.2.2. Ateondoak eta korridoreak.
 - 10.2.2.3. Sukaldeak.
 - 10.2.2.4. Terrazak.
 - 10.2.2.5. Komunak eta bainugelak.
 - 10.2.2.6. Gelak.
 - 10.2.2.7. Mekanismo elektrikoak, kanilak eta eskutokiak.
 - 10.2.3. SENTIMEN-ARAZOAK DITUZTEN PERTSONENTZAKO ETXEBIZITZAK.
 - 10.2.4. ETXEBIZITZEN ERRESERBA.
 - 10.2.4.1. Erreserbatutako etxebizitzien kokapena.
 - 10.3. TURISMO-OSTATUAK.
 - 10.4. ETXEBIZITZEZ ETA TURISMO-OSTATUEZ BESTE-LAKO

ERAIKINETAKO IRISGARRITASUN-BALDINTZA TEKNIKOAK

1. artikulua.– XEDEA.

- 1.1.– Eranskin honen helburua, titulartasun publiko edo pribatuko eraikinen irisgarritasun-baldintza teknikoak arautzea da, era honetan pertsonen erabilera eta gozamina Irisgarritasuna Sustatzen duen abenduaren 4ko 20/1997 Legearen 1. artikuluan adierazitako terminoetan berma dadin.
- 1.2.– Irisgarritasuna Sustatzen duen abenduaren 4ko 20/1997 Legearen 4. artikuluko 1., 2. eta 3. paragrafoetan aipatzen diren eraikinek, beren barruko sarbide eta komunikazioetan eta erabilera komunitariorako erantsitako aparkaleku, zerbitzu edo dependenzietan, pertsona guztiek autonomiaz erabiltzea ahalbidetuko beharko dute eranskin honetan xedatutakoari jarraiki.
- 1.3.– Industria-erabilerarako eraikin edo instalazioek, jendeari zabaldutako eremuetan, onarpen-eskubidea erreserbatuta izanik ere, bide publikorako irisgarritasuna eskainiko dute eta jendeari erantzuteko eremu bat izango dute, bai eta gurgil-aulkia erabiltzen duten pertsonentzako irisgarritasuna izango duen komun bat ere.

2. artikulua.– APLIKAZIO-ESPARRUA.

Eranskin honetan bildutako arauak nahitaez bete beharrekoak izango dira Euskal Autonomia Erkidegoaren esparruan, planoak diseinatzean eta eraikuntza-proiektuak idatzi eta burutzean.

3. artikulua.– KANPOKO ESPAZIOAK.

Eraikinez kanpoko espazio libreek hiri-inguruneko irisgarritasun-baldintza teknikoek buruzko II. eranskinean ezarritako baldintzak bete beharko dituzte.

4. artikulua.– ERAIKINAREN BARRUALDERAKO SARBIDEA.

4.1.– Sarbideak.

- 1.– Eranskin honen 1. artikuluan aipatutako eraikinen sarbideek eraikinen barrualderako irisgarritasuna bermatu beharko dute eta kanpoko zoladuraren maila berean egongo dira.
- 2.– Mailak eta eskailerak, eranskin honetan ezarritako baldintzak beteko dituzten arrapalen bidez osatu beharko dira.
- 3.– Eraikin eta instalazioen multzoen kasuan, oinezkoentzako pasaguneez eta elkarren arteko komunikazioek hiri-inguruneko irisgarritasun-baldintza teknikoek buruzko II. eranskinean ezarritako baldintzak bete beharko dituzte.
- 4.– Eraikinean sartzeko eraikuntzarik gabeko eremu bat zeharkatu behar izanez gero, kontuan izan beharko da ko-

rroidore, karrerape eta abarretatik aterainoko sarbideak bi aldeetan jarritako argizko kontzekin seinalez tatu beharko direla iluntasunean eta korridoreetarako ezarritako zabalerarekin mugatuta egon dadin.

5.– Eraikinean sartzeko atea hobeto ikusi ahal izateko, faxadaren gainerakotik nabarmenduko da kontraste kromatikoaren bidez. Gainera, argiztapen egokia izango du.

6.– Eraikinaren sarrera nagusian, sarbide-atearen eskuintean edo atezain automatikoaren ondoan, lurretik 1,50 m-tik 1,60ra bitarteko altueran, atariaren zenbakiaren eta/edo letraren berri emango duen kartel bat ipiniko da.

7.– Eraikin publikoen kasuan, beren erabileraren berri ere emango da. Informaziorako kartel horiek komunikaziorako irisgarritasunari buruzko IV. eranskinean ezarritako baldintzak beteko dituzte.

8.– Komunikatu, deitu edo irekitzeko sistemak edozein izanik eratearen ondoan kokatuko dira, ezker aldean eta 0,90 m-tik 1,20ra bitarteko altueran. Sistema hauek manipulatzeke zailtasunak dituzten pertsonak erabiltzeko modukoak izango dira eta komunikaziorako irisgarritasunari buruzko IV. eranskinean ezarritakoari egokituko zaizkio.

9.– Atea atezain automatiko bidez irekitezko sistemak (sakagailu bidez, txartela sartuta edo beste antzeko mekanismo baten bidez eragiten direnak) 0,90 mtik 1,20ra bitartean kokatuta egongo dira eta atearen edo burdin langaren segurtasun-sistema askatzeko eta ireki eta ixteko maniobra osatzeko beharrezkoak diren baliabide teknikoak izango dituzte.

10.– Gainazal beiradunek, ate beiradunei buruzko ondorengo puntuan zehaztutakoa beteko dute.

4.1.1.– Kanpoko sarbide-ateak.

1.– Atearen bi aldeetan atearen orriek hartuko ez duten espazio libre horizontal bat egongo da, 1,80 m-ko diametroko oztoporik gabeko zirkulu bat egitea ahalbidetuko duena. Etxebizitzetan 1,50 m-ko diametroa baimenduko da.

2.– Irekiera-angelua, topeak erabilita ere, 90.o-koa izango da gutxienez.

3.– Igarotze-tartearen gutxienerako zabalera 0,90 mkoa izango da eta irekiera automatikoko ateen kasuan berriz, 1,20 m-ra zabalduko da.

4.– Bi orriko atea erabiltzen direnean, normalean irekitzen denak 0,90 m-ko zabalera pasagune libre bat utziko du.

5.– Itxiera automatikoko malguki eta gailuak behar dituzten ateen kasuan, atea irekitzeko gehieneko erresistentzia

30 newtondik gorakoa ez izateko moduan instalatuko dira.

6.– Haize-babes gisako ateen kasuan ere aurreko baldintzak bete beharko dira.

4.1.1.1.– Larrialdi-irteerak.

Larrialdi-irteeretan ateen barra bikoitzeko irekierak izango dituzte. Goikoa lurraren mailatik 0,90 m-ra kokatuta egongo da eta behekoa berriz -forma laua izango duena-, 0,20 m-ra. Presio soilez eragingo dira.

4.1.1.2.– Irekiera automatikoko atek.

Irekiera automatikoko atek instalatzen direnean, beren irekiera-denbora programatua mugikortasun urria duten pertsonak igarotzeko egokia izango da eta ez du ezein kasutan 0,5 m/seg-ko abiadura gaituzteko. Horrez gain, abiadura jaisteko mekanismoak izango dituzte eta atearen baxa barne hartuko duen ekorketa bertikaleko zedula bidezko gailu sentikorrez hornituta egongo dira atalasea pertsona batek eta/edo honek ibiltzeko laguntza moduan erabiltzen dituen elementuek okupatzen duten bitartean ateen itxiera automatikoa eragozteko. Era berean, norbait harrapatuta geratuz gero, atek automatikoki irekiko dituzten gailu sentikorrek eta irekitzeko eta ixteko sistema geldiarazteko eskuzko mekanismo bat beharko dituzte.

4.1.1.3.– Ate beiradunak.


1.– Ate beiradunak segurtasun-beiraz egingo dira. 0,40 m-ko altuerako zokalo babesle bat eta 20 cm-ko zabalerara eta atearen gainerakoarekiko eta atondoaren hondoarekiko kontraste kromatiko nabarmena izango duten bi seinaleztapen-marra horizontal izango dituzte. Marra hauen beheko ertzetatik lurrera 1,50 eta 0,90 m-ko distantzia egongo da hurrenez hurren.

2.– Paramentu beiradun batean kokatuta badaude, paramentu honetatik nabarmenduko dira ikusmen-arazoak saihesteko.

4.1.1.4.– Torniketateak, langak edota sarrera edo irteera kontrolatzeko bestelako elementuak.

1.– Torniketateak, langak edo igarotzea oztokatzen duten sarrera edo irteera kontrolatzeko bestelako elementuak instalatzen direnean, 0,90 m-ko gutxienezko zabalera izango duten igarotze-tarte alternatiboak antolatuko dira. Elkarren arteko distantzia 10 m-koa izango da.

2.– Irekiera edo itxiera eragiteko sistemak manipulatzeko zailtasunak dituzten pertsonak erabiltzeko modukoak izango dira eta 0,90 m-tik 1,20ra bitarteko altueran kokatuko dira. (*Ikus 1. irudia*).



1. Irudia


4.1.1.5.– Kisketak, eskulekuak eta beste antzeko manipulazio-elementuak.

1.– Kisketak forma ergonomikoekin diseinatuko dira manipulazioan eta/edo mugikortasunean zailtasunak dituzten pertsonak eragin ahal izan ditzaten.

2.– Ahal bada, beren sekzioa zirkularra izango da, forma leun eta borobildukoa, kontusioak eta urratuak saihesteko. «Pomo» motakoak bereziki debekatuta egongo dira.

3.– Eskulekuak, atea irekitzeko maniobrarako laguntza-elementu gisa, ahal bada horizontalki jarriko dira lurretik 0,90 m-tik 1,20ra bitarteko altueran. Bertikalki jarriz gero, eragiteko eremuak 0,90 m-tik 1,20ra bitarteko tarte hartu beharko du gutxienez (lurretik neurtuta) eta orriaren behealdean 40 cm-ko tarte bat utzi beharko du gurpil-aulkia trabatu ez dadin. Beren diseinua ergonomikoa izango da eta, ahal bada, sekzio zirkularrak izango dituzte.

4.– Kisketak eta eskulekuak atearen planotik 4 cmra bereiziko dira. (Ikus 2. irudia).



2. Irudia

4.2.– Ateondoak.

Ondoko ezaugarriak hartuko dira kontuan:

- Forma erregularrekin diseinatuko dira —beharrezkoak ez diren pilare edo zutabeak saihestuta— eta altzariak edo ate-ekorketa bezalako oztoporik gabeko gutxienez $1,80 \text{ m}$ -ko diametroko (orohar, $1,50 \text{ m}$ -koa etxebizitza-erakinetan) zirkulu bat egiteko moduko dimentsioak izango dituzte.
- Ahal bada, argiztapena iraunkorra izango da, itzalik gabe eta behar adinako intentsitatearekin (300 lux eko gutxienez). Horrela, kanpotik barrurako eta alderantzizko bidean sordaitzkeen itsualdiak saihestuko dira.
- Zoruen eta hormen arteko kontraste kromatiko egokia kontuan hartuta diseinatu eta egingo dira.
- Zoladurak gogorrak izango dira, irristakaitzak (lehorrean zein bustian), etengabeak eta lauak.
- Etengailuak erraz aurkitzeko modukoak izango dira eta kontraste kromatiko ona izango dute instalatuta daudeneko paramentuarekin. Gainera, manipulazio-arazoak dituzten pertsonen eragiteko moduan diseinatuta egongo den argi bat izango dute identifikatu ahal izateko. Lurretik $0,90 \text{ m}$ -tik $1,20 \text{ m}$ bitarteko altueran instalatuko dira.

– Altzariak, mostradoreek eta leihatilek 8. artikuluan («Altzariak») ezarritakoa beteko dute.

– Ateondoetan planoak eta maketak jarriko dira komunikaziorako irisgarritasunari buruzko IV. eranskinean ezarritako ezaugarriekin eta bertan ezarritako eraikinetan.

5. artikulua.– BARNE-KOMUNIKAZIOAK.

5.1.– Baldintza orokorrak.

1.– Hormetako izkinak eta ertzek ertz bizirik ez izatea eta paramentuaren amaiera seinaleztatzeko erremateak izatea gomendatzen da.

2.– Eraikin barruko ibilbide nagusiek ez dute oztoporik izango 2,20 m-ko altuerako eta 1,80 m-ko azalerako sekzioa izango duen prisma batean (ateak salbuetsita) eta bertan ez da altzaririk, erradiadorerik, suitzalgailurik edo beste antzeko elementurik egongo. Etxe-bizitza-eraikinen kasuan zabalera 1,50 m-ra murriztu ahal izango da.

3.– Zoladurak gogorrak, irristakaitzak, etengabeak eta lauak izango dira eta toles edo zimurrik ez sortzeko moduan jarriko dira. Gainera, ertzak ez dira irisgarritasunerako eragozpen izango.

4.– Norabideko marra-gidak ipiniko dira, komunikaziorako irisgarritasunari buruzko IV. eranskinean ezartzen diren ezaugarriekin eta bertan ezarritako eraikinetan.

5.– 100 m-tik gorako oinezkoentzako ibilbideak izan ditzaizketen azalera handiko eraikinetan (eraikuntzarik gabeko espazioetako zerbitzuak barne hartuta), ibiltzeko zailtasunak dituzten pertsonentzat gurpil-aulkiak edo bestelako garraio-elementuak egongo dira 100 pertsonako 1eko proportzioan gutxi gorabehera (aurreikusitako gehieneko okupazioa kontuan hartuta).

5.2.– Komunikazio horizontalak.

1.– Komunikazio horizontaleko espazioek, pertsona guztiei lekualdatzea eta maniobratzea ahalbidetuko dieten ezaugarriak izango dituzte.

2.– Desnibelak saihestu egingo dira eta, daudenean, eranskin honen 5.3.2 puntuan adierazitako ezaugarriak izango dituzten arrapalen bidez gainditu beharko dira.

3.– Zoruaren eta hormen koloreak komunikaziorako irisgarritasunari buruzko IV. eranskinean islatutako ezaugarrien arabera kontrastatuko dira.

5.2.1.– Korridoreak.

1.– Eraikinetako —oro har— korridore nagusietan, gutxieneko igarotze-zabalera librea 1,80 m-koa izango da; etxebizitza-eraikinetako elementu komunetan berriz, 1,50 m-koa izango da.


2.– Eraikinetako —oro har, aparkalekuak barne— bigarren mailako korridoreek eta etxebizitza-eraikinetako instala-

zio, biltegi, kamarote, trasteleku eta garajeetan sartzeko korridoreek 1,20 m-ko gutxieneko igarotze-zabalera libre izango dute. Horrez gain, 1,50m x 1,50m-ko elkartzeko eta biratzeko azalerak antolatuko dira 18 m-ko gehieneko be-
reizketarekin eta, beti, korridorearen hasieran eta amaieran.

3.- Korridore edo antzekoetan altzariak jarri behar direnean, denak alde berean kokatu beharko dira.


4.- Korridoreak behar bezala argizatuta egongo dira komunikaziorako irisgarritasunari buruzko IV. eranskinean ezarritakoaren arabera. (Ikus 3 eta 4. irudiak).

ERAIKINETAN, ORO HAR



3. Irudia

ETXEBIZITZA-ERAIKINETAN



4. Irudia

5.2.2.– Ateak.

1.– Eraikinaren barruko atearak eranskin honen 4.1.1 puntuan («Kanpoko sarbide-ateak») deskribatutakoari egokituko zaizkio. Horrela, $1,20$ m-ko biraketa-diametroak onartuko dira zabalera hori duten korridoreen aldean. Gainera, kisketak eta eskulekuak ez dira atearen planotik 7 cm baino gehiago irtengo.

2.– Ate eta hornimenterako komunikaziorako irisgarritasunari buruzko IV. eranskinean adierazitako ezaugarrien araberrako kontraste kromatikoa bilatuko da.


3.– Ateak barruti baten okupazioa ikusi ahal izateko leiho edo behatxuloa duenean, bere diseinuak garaiera txikia

duten edo gurpil-aulkian eserita dauden pertsoneri erabil-tzeko aukera eman behar zaiela hartu beharkodu kontuan. Horrela, bi behatxulo jarriko dira (bat lurretik 1,10 m-ra kokatua) edo, bestela, altuera horretara iritsiko den behatxulo bakarra.

5.2.3.- Leihoak.

Komunikazio horizontaletan leihoak jartzen direnean — irekitzeko sistema edozein izanik ere—, jarraian ezarriko diren zehazpenak beteko dituzte:

- Leihoen mekanismo guztiak eta itxigailuak 0,80 m-tik 1,10era bitarteko altueran kokatuko dira, heltzea zailduko duen oztoporik gabe.



5. Irudia

– Etxebizitza-eraikinen edo erabilera publikoko eraikinen elementu komunetan, leihoen irekierak ez du korridorea hartuko 2,20 m-tik beherako altueran. (*Ikus 5. irudia*).

5.3.– Komunikazio bertikalak.

1.– Komunikazio bertikaltzat, desnibel bat gainditzea eskatzen duen lekualdaketa oro hartzen da.

2.– Eraikinen barrualdean, komunikazio bertikalerako irisgarritasuna mugikortasun urria duten pertsonak autonomiaz erabiltzeko moduko eraikuntza-elementuen edo elementu mekanikoen bidez bermatu beharko da.

5.3.1.– Eskailerak.

Eskaileren diseinuak eta trazadurak, aplikagarri zaien araudia betetzeaz gain, jarraian ezarriko diren zehazpenak beteko dituzte:

- Ezingo dira eskailera-maila isolatuak eraiki.
- Eskailerapeko gutxieneko igarotze-altuera librea 2,20 m-koa izango da.
- Eskailerek kontramailaz hornituta egongo dira eta ez dute bozelik izango.
- Eskailera-mailen gainjartzeak debekatuta egongo dira.
- Eskaileraren atalik baxuenaren arkubarnera gutxienez 2,20 m-ko altuera bateraino itxi beharko da.
- Eskailera guztiak eskubandez hornituta egongo dira bi aldeetan (1,20 m-tik gorako zabalera izanez gero) eta eskailburuen (bai eta bitartekoak ere) ibilbidearen ahalik eta zatirik handienean. Eskubanden ezaugarriak hurrengo 5.3.3 puntuan adierazitakoak izango dira. Eskaileraren zabalera 2,40 m-tik gorakoa denean, bitarteko eskubandak jarriko dira.
- Eskaileretarako sarbideetan ukipen-seinaleak jarriko dira, komunikaziorako irisgarritasunari buruzko IV. eranskinean ezarritako ezaugarriekin.
- Eskailerak behar bezala argizatuta egongo dira, komunikaziorako irisgarritasunari buruzko IV. eranskinean ezarritakoari jarraiki.



5.3.2.– Arrapalak.

Arrapalen diseinuak eta trazadurak jarraian ezarriko diren zehazpenak beteko dituzte:

- Gutxieneko zabalera 1,80 m-koa izango da etxebizitza-eraikinetan izan ezik. Hauetan 1,00 m-ra murriztu ahal izango da, betiere elkarren artean 10 m-ko gehieneko distantzia izango duten 1,50 x 1,50 m-ko elkartzeko eta biratzeko eskailburuak instalatzen badira.
- Arrapalaren luzapenean, 3,00 m-tik beherako distantzia ezingo da behera eramango duen eskailerarik egon.



- 3 m-tik beherako luzeretan, baimendutako gehieneko aldapa %10ekoa izango da. Gainerakoetan %8koa izango da eta %6koa gomendatzen da.
- Eskailbururik gabeko tartearen gehieneko luzera 10 m-koa izango da.
- Bitarteko eskailburuek 1,80 m-ko gutxieneko luzera izango dute (1,50 m-koa etxebizitza-erakinetan). Arrapalarako sarbideetan 1,80 m-ko (erakinetan, oro har) eta 1,50 m-ko (etxebizitza-erakinetan) diametroko zirkulu bat egitea ahalbidetuko duten azalerak egongo dira.
- Zoladura irristakaitza izango da.
- Arrapaletako alboak gutxienez 5 cm-tan (arrapalaren zoladuraren akaberatik neurtuta) irtendako zintarri ba-

ORO HAR



6. Irudia

ETXEBIZITZAK



7. Irudia

tzuen bidez babestuko dira makilak eta gurpilak ibilbi-dean zehar ustekabeen atera ez daitezzen.

– Atalak 2 m-tik gorako luzera duenean, arrapalak esku-bandez hornituta egongo dira bi aldeetan. Hauen ezau-garriak hurrengo 5.3.3 puntuan izango dira. (*Ikus 6 eta 7. irudiak*).

5.3.3.– Eskubandak.

1.– Eskubandak lekualdatzeko edo jarrera jakin batean egoteko laguntza gisa jartzen diren euskarri-elementuak dira.

2.– Eskubandak diseinatu eta jartzean kontuan hartu beharreko ezaugarri nagusiak ondokoak dira:

– Finkapena irmoa izango da behealdean eta beste edozein elementurekin gutxienez 4 cm-ko distantzia batera bereizita egongo da plano horizontalean. Eskubandaren goiko gainazaletik edozein oztoporekiko distantzia berriez (plano bertikalean), 10 cm-koa izango da.

– Diseinua anatomikoa izango da eta eskuari egokitzeko moduko forma izango du. 4 cm-tik 5era bitarteko diamentroko sekzio zirkularra gomendatzen da.

– Eskubandak bikoitzak eta etengabeak izango dira eta goikoa 100 ± 5 cm-ko altueran eta behekoa 70 ± 5 cm-ko altueran ipiniko dira.

– Eskaileren eta arrapalen hasiera eta amaiera eskuz antzemateko adierazle gisa, eskubandak 45 cm-tan luzatuko dira beren ertzetan, betiere ibilbiderik eta biratzeko edo elkartzeko azalerarik inbaditzen ez badute. Kasu haue-tan, eskubandak eskaileren luzerakoizan beharko du gutxienez.

– Krokadurak saihesteko moduan errematatuko dira.

– Beren kolorea arrapalen eta eskaileren gainerako elementuekin kontrastatuko da.

– Eskaileretako eta arrapaletako eskubandetan orientazio-plakak ipiniko dira komunikaziorako irisgarritasunari buruzko IV. eranskinean ezarritako ezaugarriekin eta bertan ezarritako eraikinetan.

5.3.4.– Igogailuak.

1.– Eraikin eta espazio libre guztietan, pertsonentzako eta objektuentzako igogailuen instalazioak arloko bera-riazko araudia bete beharko du. Honi dagokionez, igogailuei buruzko 95/16/EE artetzaraua ordezkatzan duen 1314/1997 Errege Dekretua eta EN-81 serieko Europako arau harmonizatuak (pertsona ezgaituen irisgarritasunari buruzkoa bereziki) izango dira aplikagarriak. Gainera, atal honetan zehaztutakoa bete beharko da.

2.– Igogailuaren berri emango duten karaktereek (piktograma, makrotipo, errotulu eta abarrek) komunikaziorako irisgarritasunari buruzko IV. eranskineko seinaleztapen-sistemei buruzko atalean ezarritako zehazpenak bete beharko dituzte.

5.3.4.1.– Sarbide-plataforma.

1.– Deitzeko kanpoko sakagailuen ondoan eta kabinan sartzeko ateen aurrean kokatutako sarbide-plataformen gutxieneko dimentsioak, oztoporik gabeko 1,80 m-ko (eraikinetan, oro har) eta 1,50 m-ko (etxebizitzaeraikinetan) diametroko zirkulu bat egiteko modukoak izango dira.

2.– Igogailura hurbiltzeko eremua gutxienez 100 luxekin seinaleztatzea (zoruaren mailan) eta igogailuratzeko eremua adieraziko duen ehundura eta kolore kontrastatuko seinaleztapen-marra bat ipintzea gomendatzen da. Marra horrek igogailuko atearen aurreko espazio librea okupatuko du eta 1,50 m x 1,50 m-ko azalera izango du.

3.– Era berean, ondokoak jarriko dira:

- Solairuaren adierazleak, Industria, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuaren 1996ko azaroaren 21eko Aginduaren bidez arautuak. Lurretik 1,50 m-ko altueran kokatuko dira, igogailuratzeko eremuaren eskuinaldean ahalbada, kanpoko markoaren janban. Informazioa altuerliebean eta braille sisteman eman beharko dute.

- Soinuzko eta argizko ohartarazleak. Deiaeren erregistroaren berrespena seinale akustiko eta argizko baten bidez egingo da. Igogailua kokatuta dagoeneko oineko atearen irekieraz seinale akustiko batek ohartaraziko du. Igogailua kontrolatzeko maniobra kolektiboa izanez gero, igogailua igotzen ala jaisten ari den adieraziko duten argizko adierazleak jarriko dira oin guztietan.

- Deitzeko sakagailuak presio bidez eragingo dira eta 0,90 m-tik 1,20ra bitarteko altueran instalatuko dira. Oin guztietan alde berean jarri beharko dira eta erraz aurkitzeko argiztapen ona -eta kokatuta dagoeneko gainazalarekin ondo kontrastatua izango dute.

- Sakagailu-kaxak ondo irakurtzeko moduko tamaina izango duten karaktereak izango ditu, altuerliebean eta braille sisteman eta sakagailu-kaxaren gainerakoarekiko kontraste kromatiko onarekin.

5.3.4.2.– Kabina.

Kabinaren barruko dimentsioak oztoporik gabeak izango dira, atek zabaltzeko beharrezkoa den espazioa salbuesita:

- Gutxieneko sakonera: 1,40 m.


- Gutxieneko zabalera: 1,10 m.

- Eraikin berean hainbat igogailu taldekatu badaude (sarbidea ematen duen oinezkoentzako ibilbidean 50 m-tik gorako distantzian daudenak —ardatzetik neurtuta— ez dira taldekatutzat hartuko), batek gutxienez irisgarritasun-baldintzak bete beharko ditu eta gainerakoek 1,25 m-ko sakonera eta 1 m-ko zabalera izan beharko dute gutxienez. Sarrera eta irteera norabide desberdinetan kokatzen badira, behar bezala seinaleztatu da eta 1,80 m-ko sakonerako eta 1,50 m-ko zabalera gutxienezko neurriak izango dituzte, etxebizitzaeraikinetan izan ezik. Hauetan neurriak 1,50 x 1,50 m-koak izango dira.
- Kabinaren eta sarbide-plataformaren zoladuren arteko maila-desberdintasuna 20 mm-koa izango da gehienez ere eta elkarren arteko bereizketa ez da 35 mmtik gorakoa izango kabina geraleku batean dagoenean.
- Zoladura gogorra, irristakaitza (lehorrean eta bustian), laua eta finkoa izango da.
- Sakagailu-kaxa igogailuratzeko ate nagusiaren albo batean jarriko da, sakagailuak gehienez ere kabinaren zoladuraren sestratik 0,90-1,20 m-ko altueran geratzeko moduko altueran. Beste edozein hormarekiko edo atearerekiko distantzia 400 mm-koa izango da gutxienez.
- Sakagailuak presio bidez eragingo dira eta sakatutakoan funtzionatzen hasiko den barne-argiztapena izango dute. Beren kolorazioa sakagailu-kaxaren gaineko desberdina izango da, sakagailu-kaxaren hondoko kolorearekin eta kabinako gainerako hormen kolorearekin ondo kontrastatua.
- Sakagailuek altuerliebean eta braille sisteman egindako zenbakiak izango dituzte.
- Alarmarako eta igogailua geldiarazteko sakagailua gainerako elementuekiko ondo bereizita egongo da kokapenari eta kolorazioari dagokienez.
- Geldirik nahiz martxan oinaren berri emango duen argizko kokapen-markadore bat jarriko da.
- Solairurako helduera eta atearen irekiera automatikoa adierazle akustiko baten bidez seinaleztatu da.
- Kabina barruko argiztapena homogeneoa izango da eta 100 luxekoa izango da gutxienez (zoruaren mailan).
- Kabinaren barrualdea $0,90 \pm 0,05$ m-ko altueran inguratuko duen, forma ergonomikoak izango dituen eta hormetatik 4 cm-ra bereizita egongo den eskubanda etengabe bat jarriko da.
- Kabinek larrialdietarako argiztapen-sorgailu autonomo bat izango dute.
- Segurtasun-ispilu ijetzi bat jarriko da, ahal bada sarbide-atearen aurrean. Igogailua erabiltzeko beharrezkoak

diren maniobrak egiteko mugikortasun-elementu osagarriak erabiltzen dituzten pertsonentzako lagungarriak izango dira.

– Iggogailuak esertzeko eremuez hornituta badago, hauek lurretik 0,45 m-ra kokatutako eserleku eraigarriak eta itzulera automatikokoak eduki beharko dituzte.


– Iggogailuan komunikazio-interfona instalatzen denean, honek sakagailu-kaxen kasuan ezarritako kokapen, ikuspen eta argitasunari buruzko baldintza guztiak beteiko ditu. (Ikus 8 eta 9. irudiak).



5.3.4.3.– Iggogailuaren atek.

1.– Eskailburuko eta igogailuaren kabinako atek automatikoak eta desplazamendu horizontalekoak izango dira eta mugikortasun urria duten pertsonak presarik

ETXEBIZITZAK



9. Irudia

gabe sartu edo irteteko beharrezkoa den denbora eman-
go dute.

2.– Horrez gain, gailu sentikorrez hornituta egon beharko
dute. Horrela, atearen baoren 2/3 gutxienez —altue-
ran— hartuko duen detekzio-sistema bat jarriko da, ata-
lasea pertsona batek eta/edo honek ibiltzeko laguntza
moduan erabiltzen dituen elementuek okupatzen duten
bitartean ateen itxiera automatikoa saihesteko.

3.– Ateak zabalik daudela, igarotze-zabalera librea 90
cm-koa izango da kabinak 1,10 m-tik beherako zabalera
duenean izan ezik. Kasu honetan, atearen gutxienerako za-
balera 0,80 m-koa izango da.

5.3.5.– Askotariko elementu mekanikoak.

1.– Pertsonak jaso edo lekualdatzeko elementu meka-
nikoak makinaren segurtasunari buruzko abenduaren 11ko

1435/1992 Errege Dekretuak, otsailaren 8ko 56/1995 Errege Dekretuaren arabera testu aldatuak edo horiek ordezkatzeko edo osatzeko dituzten arauak arautzen dituzte.

2.– Eskailera mekanikoki edo tapiz pirikaririk izanez gero, igogailu bidez osatuko dira.

5.3.5.1.– Eskailera mekanikoak.

Eskailera mekanikoek ondoko ezaugarriak izango dituzte:

- Gutxienezko zabalera librea 1 m-koa izango da.
- Eskubandez hornitutako alboko babesak izango dituzte 90 ± 5 cm-ko altueran, 45 cm-tan luzatuko direnak hain zuzen ere.
- Eskailera mekanikoen sarreran eta irteeran berdintutako eskailera-mailen gutxienezko kopurua 2koa izango da.

5.3.5.2.– Tapiz pirikariak.

Tapiz pirikariek ondoko ezaugarriak izango dituzte:

- Gutxienezko zabalera librea 1 m-koa izango da.
- Sartu eta irteteko eremuetan, horizontalarekiko lotura bat garatuko da, 1,50 m-koa gutxienez.
- Eskubandez hornitutako alboko babesak izango dituzte 90 ± 5 cm-ko altueran, 45 cm-tan luzatuko direnak hain zuzen ere.
- Tapiz pirikari inklinatuak, gainera, 5.3.2 puntuan arropaletarako ezarritako baldintzak beteko dituzte, zabalerrari dagokionez izan ezik.
- Suteei buruzko araudi aplikagarriaren arabera ebakua-zio-bidetzat hartzen direnak korridore edo arropaletarako zehaztutako gutzia beteko dute.

5.3.5.3.– Plataforma jasotzaileak.

a) Lekualdaketa bertikaleko plataforma jasotzaileak.

- 1.– Indarrean dagoen araudiak baimendutako desnibelak gainditu ahal izango dituzte.
- 2.– Sartzeko eta irteteko eremuetan 1,80 m-ko eta 1,50 m-ko (etxebizitza-erakinetan) diametroko zirkulu bat egiteko moduko oztoporik gabeko espazio libre bat egongo da.
- 3.– Sakatzeko aginteak plataforman eta bertan sartzeko eta bertatik irteteko eremuetan egongo dira, 0,90 m-tik 1,20ra bitarteko altueran kokatuta. Gainera, manipulatzeko zailtasunak dituzten pertsonak erabiltzeko modukoak izango dira. Ereku horietan, autonomiaz erabiltzeko argibide-panel bat jarriko da.
- 4.– Plataformak 1,40 m-ko luzera eta 1,10 m-ko zabalera izango du gutxienez. Babes-hesi bat eta segurtasun-topeak izango ditu gurpil-aulkiak labaindu ez daitezela.

5.– Bere gutxieneko jasotze-ahalmena 250 kg-koa izango da eta bere gehieneko desplazamendu-abiadura berriz, 0,1 m./seg-koa, betiere indarrean dagoen araudiak baimentzen badu.


6.– Plataformako atek 0,90 m-koak izango dira. (Ikus 10. irudia).

b) Lekualdaketa zeiharreko plataforma jasotzaileak.

1.– Hauen instalazioaren funtzioa eraberritze-obretan laguntza teknikoa ematera mugatuko da, dagoen oztopo bat kentzeko beste aukerarik ez dagoenean hain zuzen ere.

2.– Sartzeko eta irteteko azalerak lekualdaketa bertikaleko jasogailuen berberak izango dira.

3.– Plataformak 1,25 m-ko luzera eta 1 m-ko zabalera izango du gutxienez. Babes-hesi bat eta segurtasun-topeak izango ditu gurpil-aulkiak labaindu ez daitezzen.



10. Irudia

4.– Bere gutxieneko jasotze-ahalmena 250 kg-koa izango da eta bere gehieneko desplazamendu-abiadura berriz, 0,1 m/seg-koa, betiere indarrean dagoen araudiak baimentzen badu.


5.– Plataformako atea 0,80 m-koak izango dira. (ikus 11. irudia).

6. artikulua.– DEPENDENTZIAK.

6.1.– Baldintza orokorrak.

1.– Distirak saihesteko zoladura lauak, mateak eta irris-takitzak gomendatzen dira.

2.– Inguruneak eta/edo giroak desberdintasun kromatikoa bidez eta argien intentsitatearen bidez bereizteko ahaleginak egingo dira eta interes-puntuak edo proble-



11. Irudia

matikoak (hala nola informazio-puntuak eta ateak) nabarmenduko dira.

3.– Instalazioek (hala nola armairuek, arropazaindegiek, komunek, aldagela edo kamerinoek, telefonoek, makina saltzaileek eta antzekoek) eta altzariek (mostradore, aulki, mahai, paperontzi eta abarrek) eranskin honen 7. eta 8. artikuluetan ezarritakoa beteko dute.

6.2.– Jendeari erantzuteko eremuak.

1.– Interes orokorreko dependentzietarako (hala nola jendeari erantzuteko espazioak, aretoak, bulegoak eta antzekoak) irisgarritasuna eranskin honetan jasotako parametroak betez bermatuko da.

2.– Barrualdearen banaketak, gurpil-aulkia erabiltzen duen pertsona bat bertan egotea eta bira ematea ahalbidetuko du, parametro antropometrikoei buruzko I. eranskinean jasotako parametroen arabera.

6.3.– Publikoa biltzeko aretoak.

1.– Eserlekuak dituzten publikoa biltzeko aretoetarako (hala nola ikasgelak, ikuskizun-aretoak, bilera-aretoak eta antzekoak) irisgarritasuna, eranskin honetan eta hiri-ingurunekeo irisgarritasun-baldintza teknikoei buruzko II. eranskinean jasotako parametroak betez bermatuko da.

2.– Tauletara edo eszenatokira autonomiaz hurbiltzeko aukera bermatuko da.


3.– Dependentzia horietan, aretorako sarbidea ematen duten lekuen eta pasaguneen ondoan, mugikortasun urria duten pertsonentzat erreserbatutako eta behar bezala seinaleztatutako eserlekuak eta espazioak antolatuko dira (gurpil-aulkia erabiltzen duten pertsonentzat 2 espazio eta ibiltzeko laguntzak erabiltzen dituzten pertsonentzat 2 eserleku 100eko edo zatikiko).

4.– Erreserbatutako espazio horien gutxienekeo dimentsioak 1,40 m x 1,10 m-koak izango dira (oztoporik gabe) gurpil-aulkien maniobragarritasuna errazteko.

5.– Aulkia labainduko ez dela bermatuko da.

6.– Erreserbatutako eserlekuak lurretik 0,45 m-ko altueran kokatuko dira itzulera-gailurik gabe. Beso-euskarriak eserlekutik 0,20 m-ko altueran izango dituzte eta eraisgarriak izango dira. Aurrean 0,90 m-ko espazio librea izango dute eta, ahal bada, korridoreen ondoan kokatuko dira.

7.– Dependentziaren barruan, erreserba horietarako eta tauletarako edo eszenatokirako korridoreek 1,80 mko zabalera eta %6ko edo gutxiagoko aldapa izango dute. (*Ikus 12. irudia*).



12. Irudia

6.3.1.– Estadioak eta harmailak.

1.– Estadioetan, harmailetan eta antzekoetan, sarbideen ondoko eremuetan, ondoko espazioak erreserbatuko dira gurpil-aulkia erabiltzen duten pertsonentzat, bai eta eserleku-kopuru bera ere, edukieraren arabera:

EDUKIERAK	ERRESERBA
5.000ra bitartean	%2
5.001etik 20.000ra bitartean	100 + %0,5 (edukiera 5.000)
20.000tik gora	175 + %0,25 (edukiera 20.000)

2.– Plataforma jasotzaileetan edo 40 cm-tik gorako desnibeletan babes-eskudelak jarriko dira eranskin honen 5.3.3 puntuaren («Eskubandak») arabera.

6.3.2.– Atsedен-igerilekuak.

1.– Ontzia inguratzen duen pasagune edo oinbideak ez du oztoporik izango eta bere gutxieneko zabalera 1,80 m-koa izango da. Putzuak eta ontzirako ur-isurketak saihesteko, aldapa txiki bat izango du kanpoaldera (%2koa gehienez).

2.– Zoladurak irristakaitzak eta iragazkaitzak izango dira.

3.– Ontzi guztietan, mugikortasun urria duten pertsonak

erabiltzeko moduko laguntza tekniko bat (garabia) edo gehiago jarriko dira.

4.– Eskailerek 1,20 m-ko gutxieneko zabalera izango dute eta mailagaina irristakaitza eta gutxienez 0,30 m-koa izango da. Tabika 0,16 m-koa izango da gehienez.

5.– Eskudelak eta eskubandak bi aldeetan eta altuera bikoitzean (0,90 m. eta 0,70 m.) jarriko dira eta ontzikoarekin jarraitasun bat izan beharko dute.

6.– Pedilubioek gurpil-aulkiarekin iristea ahalbidetuko dute eta makilak erabiltzen dituztenentzat pasagune alternatibo bat utziko da.

7.– Ontziaren perimetro osoa seinaleztatu da (karela-
ren ondoan) 0,50 m-ko zabalera eta ehundura eta kolo-
razio desberdina eta zoladuraren gainerakoarekin ondo
kontrastatua izango dituen marra baten bidez. Marra hor-
rrek ikusmen-urritasun larriak dituztenei informazioa eta
abisu emateko funtzio bikoitza beteko du.

7. artikulua.– HIGIENE-ZERBITZUAK, ALDAGELAK ETA DUTXAK.

7.1.– Baldintza orokorrak.

Isolatuta instalatzen diren komunak, aldagelak, dutxak eta antzekoak mugikortasun urria duten pertsonak erabiltzeko modukoak izango dira. Elementu ugari izanez gero, sexu bakoitzerako elementu bana erreserbatuko da 10 elementuko edo zatikiko.

7.2.– Komunak.

Mugikortasunurria duten pertsonentzako higienezerbitzuek, hiri-inguruneko irisgarritasun-baldintza teknikoei buruzko II. eranskinak komun publikoei buruzko atalean jasotako ezaugarriak izango dituzte.

7.3.– Aldagelak, dutxak eta antzekoak.

Erabilera publikoko eraikinetan instalatzen diren aldagela eta dutxa egokituak hurbilerrazak izango dira eta ondoko ezaugarriak bete beharko dituzte:

1) Aldagela eta dutxa egokituak indibidualak izango dira eta ez dira esparru bereziak izango. Komunetako aparatu egokituarekin (komun-zuloa eta konketa) osatuko dira. Saka-gailu bidezko abisueta alarma-sistema bat izango dute, gutxienez bi hormatan eta lurretik 20 cm-ra kokatuta, komun-zulotik bat behintzat eragin ahal izan dadin.

2) Aldagelak eta dutxak banatzeko espazioetan 1,80 m-ko diametroko oztoporik gabeko zirkulu bat egin ahal izango da. Kabina indibidual egokituetan 1,50 mko oztoporik gabeko zirkulu bat egin ahal izango da.

Banaketara destinatutako espazioetan zein aldagela eta dutxa egokituaren kabinan, ateen gutxieneko igarotze-zabalera 90 cm-koa izango da. Orriek, bi aldeetan, atearen zabalera osoa hartuko duen 30 cm-ko gutxieneko altuerarainoko zokalo babesle bat izango dute. Inoiz ez dira barrualdera zabalduko. Aldageletan eta dutxetan irekiera automatikoa izanez gero, honek abisatzeko argizko eta soinu-zko seinale bat izango du.

3) Aldagelek hormari erantsitako banku bat izango dute, 0,60 m-ko zabalera, 1,50 m-ko luzera eta 0,45 m-tik 0,50era bitarteko altuera izango duena hain zuzen ere.

Dutxa egokituan 0,60 m-ko hondoa izango duen eserleku eraisgarri bat instalatuko da 0,45 m-tik 0,50era bitarteko altueran.

Transferentziak errazteko, alde batean (dutxaren bi aldeetan gomendatzen da) barra zurrunik ipiniko dira (bat gutxienez horma aldera eraisgarria, iristeko hurbilena hain zuzen ere). Tinko ainguratuta egongo dira 80 ± 5 cm-ko altueran eta 80-90 cm-ko luzerarekin.

Barretatik dutxaren jarlekuaren ardatzera 30-35 cmko distantzia egongo da.

Gainera, aldageletako hormetan, kabina indibidualetan eta dutxetan eskubandak jarriko dira 90 ± 5 cmko altueran.

4) Zoladura irristakaitza izango da, lehorrean nahiz bustian.

Gainera, autogarriketa-sistema instalatzean, kontuan izan behar da instalatutako sistemak elementu desberdinen eta batez ere zoladuraren lehorketa barne hartu behar duela. Horrela, pertsonen irristadak eta erorketak eragin ditzaketan hezetasunak eta ur-hondakinak desagertaraziko dira. Sareto-hustubideetan artekaren gehieneko argia 1 cm-koa izango da.

5) Kanilak ergonomikoak izango dira, aginte bakarrekoak eta palanka luzekoak. Tenperatura erregulatzeko aukera emango dute eta 0,90 m-ko altueran kokatuko dira.

Dutxaren iturria, manipulatzeko zailtasunak dituzten pertsonen erabiltzeko modukoa izango da. Ez da finkoa izango eta altueran erregulatu ahal izango da eserlekuaren alde batean kokatutako barra bertikal batetik.

Ur beroko tutuak material isolatzaile termiko bidez babestuko dira. Gainera, tenperatura erregulatzeko balbula bat jarriko da sentikortasun termikorik gabeko pertsonak erre ez daitezten.

6) Dutxak irtenunerik gabe, zoladuraren mailan eta putzurik ez sortzeko aldapa egokiekin instalatuko dira.

Bainuontzirik izanez gero, ondokoa hartu beharko da kontuan:


- Bainuontziaren ondoan 1,80 m-ko diametroko espazio libre bat egongo da gurgil-aulki batek bira egin ahal izateko.
 - Diagonalean edo bertikalean ipinitako barra batzuk instalatuko dira, bainuontziaren zorutik neurtuta 0,70-1 m-ko altuerara iritsiko direnak hain zuzen ere.
 - Kanilen aginteak bainuontziaren luzetarako aldearen erdian instalatuko dira.
 - Bainuontziaren goiko ertza zoladuratik gehienez 0,45 m-ra kokatuta egongo da.
 - Bainuontzian sartzeko eta bertatik irteteko transferentziak egiteko laguntza teknikoren bat egongo da.
- 7) Armairuak lurretik 0,35 m-ko altuera librea jarriko dira gurgil-aulkia erabiltzen duten pertsonak hurbil daitezten. Ez dute lurretik 1,60 m-tik gorako altuera gaindituko eta barrualdean esekigailurako barra bat izango dute lurretik 0,80-1,10 m-ra kokatua.

8. artikulua.– ALTZARIAK.

8.1.– Baldintza orokorrak.

- 1.– Erabilera publikoko dependentzietan eta instalazioetan ipintzen diren altzariak eranskin honetan zehaztutakoa bete beharko dute.
- 2.– Mugikortasun urria duten pertsonentzat erreserbatutako altzariak parametro antropometrikoei buruzko I. eranskinean jasotako parametroak bete beharko dituzte.
- 3.– Altzari horiek, ahal bada, alde berean lerrokatuta egongo dira ondokoa kontuan hartuta:
 - Altzarien arteko pasagune nagusiak 1,80 m-koak izango dira.
 - Altzari guztiek ertz edo izkinak kamutsak izan beharko dituzte.
 - Altzariak gurgil-aulkia erabiltzen duten pertsonak erabiltzeko moduan diseinatuko dira eta makilak erabiltzen dituzten edo ikusmen-arazoak dituzten pertsonentzat zailtasunik edo arriskurik ez sortzeko moduan jarriko dira. Altzariak erraz aurkitzeko moduko tokian ipiniko dira, argiztapen ona izango dute eta makil baten bidez erraz antzemateko modukoak izango dira.
 - Itxaron-eremuetan eserlekuak modu erregular batean eta jendea ibiltzen den eremuetatik kanpo antolatuko dira eta eraikinaren sarbide eta instalazioekin erraz komunikatzeko korridore libre batutziko da. Ilaretan jarri behar izan

nez gero, ilaren arteko gutxieneko distantzia 0,90 m-koa izango da. Eremu hauetan, eserleku bat gutxienez lurretik 0,45 cm-ra kokatuta egongo da eta beso-euskarri eraisgarria izango du eserlekutik 20 cmko altueran.



13. Irudia

8.2.– Mostradoreak eta leihatilak.

1.– Jendeari erantzuteko mostradore eta leihatilak 1,10 m-ko gehieneko altueran egongo dira eta gutxienez 1,20 m-ko luzerako tarte batizango dute 0,80 m-ko altueran. Halaber, oztoporik gabekotar e bat izango dute behealdean, 0,70 m-ko altuerakoa eta 0,50 m-ko sakonerakoa.

2.– Erabiltzaileari dagokion mostradorearen eremuan, argi-intentsitatea 500 luxekoa izango da gutxienez. (*Ikus 13. irudia*).

8.3.– Makina saltzaileak.

1.– Erabilera-argibideak dituzten makina saltzaileek braille sistema, altuerliebea eta makrokaraktreak izango dituzte ikusmen-arazoak dituzten pertsonen autonomiaz erabili ahal izateko (aparkaleku-tiketak saltzen dituzten makinak kasuan izan ezik). Makina horiek soinuzko informaziorako gailu bat izatea gomendatzen da.

2.– Dialak eta diru-kaxak 0,90 m-tik 1,20ra bitarteko altueran kokatuko dira.

3.– Txartelak edo saldutako produktuak jasotzea erraza izango da mugikortasun-arazoak edo manipulatzekoak dituzten pertsonentzat. 0,70 m-ko altueran kokatuta egongo dira.

8.4.– Telefonoak.

8.4.1.– Mugikortasun urria duten pertsonen erabiltzeko moduko telefonoak.

1.– Isolatuta instalatzen diren erabilera publikoko telefonoak mugikortasun urria duten pertsonen erabiltzeko modukoak izango dira. Elementu-talde batizanez gero, 10 telefono-aparatuko edo zatikiko bat erreserbatuko da.

2.– Mugikortasun urria duten pertsonen erabilerara destinatutako erabilera publikoko telefonoetan, aparatuek, dialak, diru-kaxak eta txartel-kaxak 0,90 m-ko altueran instalatuko dira.

3.– Dialak teklatu bidezkoak eta manipulatzeko arazoak dituzten pertsonentzat erabiltterazak izango dira eta zenbakiak, tamainari eta kontrasteari dagokionez, ondo ikusteko modukoak izango dituzte.

4.– Pertsonen eta tresnen sostengurako apal bat ipiniko da 0,80 m-ko altueran eta azpian 0,70 m-ko espazio librea utziko da.

5.– Telefono hauek erraz aurkitzeko eta hurbiltzeko moduko espazioetan instalatuko dira eta oztoporik gabeko 1,80 m-ko biraketa-diametroa ahalbidetu beharko da telefonoa erabiliko den aldearen aurrean.

6.– Telefono-multzoen kasuan, mugikortasun urria duten pertsonen erabiltzeko moduko telefonoak ez dira ertzetan jarriko eta gutxienez lehenaren eta azkenaren alboko aldeak lurreraino luzatu beharko dira.

8.4.2.– Komunikatzeko zailtasunak dituzten pertsonentzat egokitutako telefonoa.

- 1.– Telefono horren kokapena eta ezaugarri teknikoak eta elkarreragin-ezaugarriak komunikaziorako irisgarritasunari buruzko IV. eranskinean ezarritakoari egokituko zaizkio.
- 2.– Komunikatzeko zailtasunak dituzten pertsonak erabiltzeko telefono-aparatu egokitu bat erreserbatuko da erai-kinean edo lokalean instalatzen diren 10eko edo zatikiko.

8.5.– Instalazio elektrikoa eragiteko eta funtzionarazteko mekanismoak eta alarmak.

- 1.– Instalazio elektrikoa eragiteko eta funtzionarazteko mekanismoak eta alarmak mugikortasun urria eta/edo manipulazio-arazoak dituzten pertsonak erabiltzeko moduan diseinatuko dira.
- 2.– Mekanismo eta alarma horiek 0,90 m-tik 1,20ra bitartean jarriko dira.
- 3.– Beren kolorazioa, instalatuta dauden paramentuarekin kontrastatua izango da.
- 4.– Halaber, komunikaziorako irisgarritasunari buruzko IV. eranskinak alarmen eta gainerako informazioeta abisu-sistemen arloan ezarritakoa bete beharko da.

8.6.– Kutxazainak eta bestelako elementu elkarreragileak.

- 1.– Erraz aurkitzeko eta hurbiltzeko moduko espazioetan instalatuko dira eta oztoporik gabeko 1,80 mko biraketa-erradioa ahalbidetu beharko dute elementu elkarreragilea manipulatzeko aldean.
- 2.– Teklatua 0,90 m-tik 1,20ra bitarteko altueran kokatuko da, plano horizontalean edo bertikalean zertxobait inklinatuta eta euskarri-puntu gisako apal txiki batekin.
- 3.– Pantaila 15°-tik 30°-ra bitartean inklinatuta instalatuko da, 1,00 m-tik 1,40ra bitarteko altueran eta eserita dagoen pertsona batek ondo ikusteko moduan.
- 4.– Elkarreraginak komunikaziorako irisgarritasunari buruzko IV. eranskinean ezarritako araei jarraituko die.

8.7.– Informazioa eta seinaleztapena.

- 1.– Eraikinaren barruan jartzen diren informazio eta seinaleztapeneko adierazleak, eserita dagoen pertsona batek edo, hala badokio, ikusmen-arazoak dituzten pertsonak irakurtzeko moduan kokatuko dira.
- 2.– Ez dituzte oinezkoentzako ibilbideak eta/edo eraikineko altzari eta instalazioen erabilera eragotziko.
- 3.– Paramentuei erantsita instalatzen ez direnean eta 2,20 m-tik behera kokatuta daudenean, lurreraino iritsiko dira

oinplano-proiektziorik handienarekin. Gainera, ertz boro-bilduekin instalatu beharko dira.

4.– Erraz aurkitzeko modukoak izango dira eta argi-maila handia eta uniformeak izango dute. Gainerako ezaugarriak komunikaziorako irisgarritasunari buruzko IV. eranskinean ezarritako baldintzei egokituko zaizkie.

9. artikulua.– Aparkalekuak.

9.1.– Garaje edo aparkaleku guztietan, titulartasuna eta erabilera publiko edo pribatua edozein izanik ere, erreserbatutako plazen gutxieneko kopurua 40ko edo zatikiko 1ekoa izango da. Etxebizitza-erakinean lotutako aparkalekuen kasuan, erreserbatutako etxebizitza bakoitzeko plaza bat erreserbatuko da edo, gutxienez, 40 plazako 1.

9.2.– Turismo-ostatuaren kasuan, aparkaleku-zerbitzurik izanez gero erreserbatzeko ostatu bakoitzeko plaza bat erreserbatuko da.

9.3.– Aparkaleku-plazak eraikuntzarik gabeko bide edo espazioetan kokatzen direnean, hiri-ingurunean irisgarritasun-baldintza teknikoei buruzko II. Eranskinaren 3.11 puntuan («Aparkalekuak») zehaztutakoa bete beharko dute.

9.4.– Eraikinaren barruan kokatzen direnean, ahal bada kalearen mailan kokatutako oinetan erreserbatuko dira (larrialdietan ebakuazioa errazteko) eta, nolana ere, oinezkoentzako sarbideen ondoan.

9.5.– Erreserbatutako plazen gutxieneko dimentsioak ondokoak izango dira: 6,00 m-ko luzera eta 3,60 m-ko zabalera luzetarako aparkalekuen kasuan eta 5,00 m-ko luzera eta 3,60 m-ko zabalera zeharkako aparkalekuen kasuan.

10. artikulua.– EGOITZA-ERAIKINAK.

10.1.– Baldintza orokorrak.

1.– Hiri-inguruneari, sarbideei eta erantsitako eraikinekiko erlazioari dagokienez, eranskin hauetan ezarritako irisgarritasun-baldintzak beteko dituzte.

2.– Barrualdean etxebizitza edo ostatuetaerainoko eta hauen eta elementu komunen, garajeen, etxebizitzetako trastelekuen eta erabilera komunitarioko dependentzia erantsien arteko komunikazioetaerainoko irisgarritasuna bermatuko diete gurgil-aulkia erabiltzen dutenei. Etxebizitzaren zenbakia edo letra informazio-kartelen bidez seinaleztatu dira. Kartelak erraz aurkitzeko moduko leku batean jarriko dira, txirrinarekiko elkartzut eta lurretik 1,50 m-tik 1,60ra bitarteko altueran.

3.– Halaber, kartel horien bidez trasteleku, elementu komun, garaje eta bestelako dependentzia erantsi edo komunitarioetako ateak seinaleztatu dira.

4.– Informazio-kartel horiek komunikaziorako irisgarritasunari buruzko IV. eranskinean ezarritako baldintzak beteko dituzte.

5.– Kanpoko espazioetan hiri-inguruneko irisgarritasun-baldintza teknikoei buruzko II. eranskinean eza-rritakoa beteko dute, eta eraikinaren barrualdean berriz, eranskin honetan ezarritakoa.

10.2.– Etxebizitzen barruko baldintzak.

10.2.1.– Baldintza komunak.

Etxebizitzen barruan ondoko baldintzak beteko dira:

- Etxebizitzaren barruan sartzeko atea edo pasagune libreko baoak 0,90 m-ko zabalera izango du gutxienez.
- Etxebizitzaren barruko ateetan, pasagune libreko baoaren gutxienerako dimentsioa 0,80 m-koa izango da.
- Korridoreak, bere puntu guztietan, 0,95 m-ko zabalera izango du gutxienez.
- Oin bat baino gehiagoko etxebizitzetan, jasogailu bat instalatu ahal izateko zehazpen teknikoak eta diseinukoak egingo dira.
- Kanpoko artotzia erabilgarria izango da eta mantentze eta garbiketarako irisgarritasuna bermatuko da.
- Etxebizitzak terrazarik izanez gero, honek ez du aldapa handirik izango eta hustubideek material irristakaitzez (bai eta bustian ere) egindako saretoa izango dute. Saretoen gehieneko irekiera 1 cm-koa izango da eta makilak edo gurpil-aulkiak erabiltzen dituzten pertsonak behaztopa ez egiteko modukoak izango dira.
- Atezain automatikoa instalatzen denean, bideoatezaina izango da.

10.2.2.– Gurpil-aulkia erabiltzen duten edo mugikortasun urria duten pertsonentzako etxebizitzak.

Gurpil-aulkia erabiltzen duten pertsonentzako etxebizitzaren kasuan ondoko gutxienerako baldintzak ezartzen dira: *(Ikus 14., 15. eta 16. irudiak).*

10.2.2.1.– Ateak eta pasagune libreko baoak.

1.– Etxebizitzan sartzeko atea bi behatxulo izango ditu. Behekoa lurretik 1,10 m-ra kokatuta egongo da. Behatxulo honen bi aldeetan, bira egiteko 1,80 m-ko oztoporik gabeko diametroa ahalbidetuko duen espazio libre horizontal bat egongo da, atearen orriek hartuko ez dutena hain zuzen ere.

2.– Etxebizitzaren barruan sartzeko ateen pasagune libreko baoaren gutxienerako dimentsioa 0,90 m-koa izango da.

3.– Ateak manipulazio-arazoak dituzten pertsonak zabaldu eta maniobratzeko modukoak izango dira.

4.- Komunetako atek ez dira inoiz barrualderantz zabalduko eta irrinstatzaileak jarri ahal izango dira.


10.2.2.2.- Ateondoak eta korridoreak.

1.- Ateondo edo banatzaileetan oztoporik gabeko 1,80 m-ko diametroko zirkulu bat egin ahal izango da gurpil-aulki baten bira osoa ahalbidetzeko.


2.- Korridoreen gutxieneko zabalera 1,20 m-koa izango da.

10.2.2.3.- Sukaldeak.

1.- Sukaldeen dimentsio eta baldintzak ondoko parametroi egokituko zaizkie:



14. Irudia




– Atearen, jakiak prestatzeko eremuen edo gaineko sukaldearen eta harraskaren aurrean espazio bat egongo da 1,80 m-ko diametroko oztoporik gabeko zirkulu bat egin ahal izan dadin. Horrela, gurpil-aulki baten bira osoa ahalbidetuko da.

– Altarien arteko pasagune libreko barea 90 cm-koa izango da gutxienez.

Harraskaren ertz-altuera 80 cm-koa izango da, azpian 65 cm-ko tarte libre bat egongo da eta kanilak aginte bakarrekoak izango dira.

2.– Suek eta lan-taulek 80 cm-ko altuera eta 65 cmko hondoa izango dute gehienez.




16. Irudia

3.– Armairu baxuen zokaloek 20 cm-ko altuera izango dute (16 cm-ko hutsunea).

4.– Etxetresna elektrikoak aurrez erabiltzekoak izango dira eta alboetatik erabiltzeko moduko atearak izango dituzte. Ahal bada, horman sartzeko modukoak izango dira. (Ikus 17. irudia).

10.2.2.4.– Terrazak.

1.– Etxebizitzak terrazarik izanez gero, honek ez du aldapa handirik edo mailarik izango bertara hurbiltzeko. Gainera, karela edo babes-eskudela diseinatzean, eserita dagoen pertsona baten ikus-eremua hartu beharko da kontuan.



17. Irudia

2.- Hustubideek material irristakaitzez (bai eta bustian ere) egindako sareta izango dut. Saretoen gehieneko irekiera 1 cm-koa izango da eta makilak edo gurpil-aulkiak erabiltzen dituzten pertsonak behaztopa ez egiteko modukoak izango dira.

10.2.2.5.- Komunak eta bainugelak.

a) Baldintza orokorrak.

1.- 1,80 m-ko diametroko zirkulu bat egin ahal izateko modukoa izango den eta aparatu sanitario bakoitzera eta osagarrietara hurbiltzeko aukera emango duen oztoporik gabeko espazio bat egongo da.

2.- Etxebizitzak bainugela bakarra izanez gero, bainuontzia, dutxa, komun-ontzia eta konketa instalatzeko eta hauetara hurbiltzeko moduko espazio bat aurreikusiko da.

3.- Bainugela bat baino gehiago izanez gero, batean bainuontzia eta bestean dutxa instalatu ahal izango da. Egokitzapena erreserbaren esleipendunak finkatu beharko du.

4.- Komunetako eta bainugeletako elementuek ondoko ezaugarriak izango dituzte:

b) Konketa.

1.- Paramentuan tinko ainguratuta egongo da.

2.- Konketa ertza 80-90 cm-ko altueran jarriko da eta bere azpian oztoporik gabekotarte bat geratuko

da, 60-70 cm-ko hondokoa eta 70 cm-ko altuerakoa.

c) Komun-ontzia.

- 1.– Komun-ontzira hurbiltzeko 80 cm-ko zabalerako oztoporik gabeko alboko espazio bat aurreikusiko da.
- 2.– Komun-ontziaren jarlekua 45 cm-tik 50era bitarteko altueran instalatuko da.
- 3.– Transferentziak errazteko, komun-ontziaren bi aldeetan barra zurrinak ipiniko dira (bat gutxienez horma aldera eraisgarria, iristeko hurbilena hain zuzen ere). Tinko ainguratuta egongo dira 80 ± 5 cm-ko altuera batean eta 90-80 cm-ko luzerarekin.
- 4.– Barretatik komun-ontziaren ardatzera 30-35 cmko distantzia egongo da.
- 5.– Komun-ontziaren gainerako ezaugarriak II. eranskiniaren 3.12 puntuan jasotakoak izango dira.

d) Bainuontzia.

- 1.– Bainuontziaren ondoan 1,80 m-ko diametroko espazio libre bat egongo da gurpil-aulki batek bira egin ahal izateko.
- 2.– Diagonalean edo bertikalean ipinitako barra batzuk instalatuko dira, bainuontziaren zorutik neurtuta 0,70-1 m-ko altuerara iritsiko direnak hain zuzen ere.
- 3.– Kanilen aginteak bainuontziaren luzetarako aldean erdian instalatuko dira.
- 4.– Zoladuraren eta bainuontziaren ertzaren arteko desnibela 0,45 m-koa izango da gehienez.

e) Dutxa.

- 1.– 60 cm-ko hondoa, 40 cm-ko zabalera eta 45 cm-tik 50era bitarteko altuera izango duen eserleku eraisgarri bat instalatuko da.
- 2.– Transferentziak errazteko, alde batan (dutxaren bi aldeetan gomendatzen da) barra zurrinak ipiniko dira (bat gutxienez horma aldera eraisgarria, iristeko hurbilena hain zuzen ere). Tinko ainguratuta egongo dira 80 ± 5 cm-ko altueran eta 80-90 cm-ko luzerarekin.
- 3.– Barretatik dutxaren jarlekuaren ardatzera 30-35 cm-ko distantzia egongo da.

f) Bideta.

Bidet bat instalatzen bada, komun-ontziaren antzera egingo da hurbiltzeko espazio libreei, altuerari eta transferentzietan laguntzeko barrei dagokienez.

10.2.2.6.– Gelak.

a) Logelak.

- 1.– Etxebizitzako logela bat gutxienez bikoitza izango da.
- 2.– Logela guztietan, sarbide-atearen aurrean, 1,80 m-ko diametroko zirkulu bat egin ahal izango da.

3.– Ohearen alboko bi aldeetan 0,90 m-ko gutxieneko zabalera izango duen espazio libre bat egongo da eta ohearen oinaldean berriz, 1,10 m-koa.

b) Egongelak.

1.– Altzariak 0,90 m-ko pasagune libre baten bitartez eta 1,80 m-ko diametroko zirkulu bat egin ahal izateko oztoporik gabeko espazio baten bitartez iristeko modukoak izango dira.

2.– Egongelei edo sukaldeei jangela-funtzioa gaineratzen zaienean, beren azalera handiagoa izango da.

10.2.2.7.– Mekanismo elektrikoak, kanilak eta eskutokiak.

1.– Etxebizitzaren instalazioetako mekanismoak, etengailuak, entxufeak, ixteko giltzak, galdarak manipulatzeako agintak, erradiadoreak, berogailuak eta antzeko elementuak 0,90 m-tik 1,20ra bitarteko altueran jarriko dira.

2.– Ur bero sanitarioaren instalazioak tenperatura erregulatzeko balbula bat izango du.

3.– Kanilak aginte bakarrekokoak izango dira.

4.– Eskutokiak, manipulazio-arazoak dituzten pertsonen erabiltzeko modukoak izango dira.

10.2.3.– Sentimen-arazoak dituzten pertsonentzako etxebizitzak.

1.– Ikusmen-arazoak dituzten pertsonentzako etxebizitzaren kasuan, egokitapena bizitzeko autonomia erraztuko duten irisgarritasun-irizpide teknikoek jarraiki egingo da. Irizpide hauek komunikaziorako irisgarritasunari buruzko IV. eranskinaren arauetan zorrozki islatuta badaude ere, oinarritzat hartu beharreko irisgarritasun-jarraibideak jarraian adieraziko matikoki:

– Orientatzeko forma sinpleak.

– Oztopoak saihestea.

– Argiaren egokitzapena.

– Irudien handiagotzea.

– Informazio akustikoa.

– Ukipen bidezko informazioa eta zinetesikoa.

2.– Entzumen-arazoak dituzten pertsonentzako etxebizitzaren kasuan, txirrinaren edo bideoatezainaren berri emateko sistema bat instalatzea ahalbidetuko duen zirkuitu elektriko bat instalatzeko beharrezkoak diren kanalizazioak eduki beharko ditu etxebizitzak.

10.2.4.– Etxebizitzaren erreserba.

1.– Babes Ofizialeko Etxebizitzaren sustapenetan, 25 etxebizitzako edo zatikiko bat erreserbatuko da mugikortasun urria duten pertsonentzat.

2.– Etxebizitza libreko sustapenetan berriz, berrogei-

ta hamar etxebizitzatik gorako kopurua izanez gero, 50 etxebizitzako edo zatikiko bat erreserbatuko da.

3.– Etxebizitzen sustatzaileek, erreserbatutako etxebizitzak esleipendunaren ezaugarrietara egokitu beharko dituzte eta araudia dela eta esleipenean esleipenduna ezezaguna izanez gero, etxebizitzek 10.2.2 puntuan zehaztutakoa beteko dute. Etxebizitza hauen aleko salmenta-prezioa ez da sustapen bereko gainerako etxebizitzena baino handiagoa izango.

10.2.4.1.– Erreserbatutako etxebizitzen kokapena.

Sustapen berekoak ez dira oin edo bloke berean kokatuko, ez eta, gehienak behintzat, bloke desberdinetako behe-oinetan ere.

10.3.– Turismo-ostatuak.

1.– Edozein mota, sailkapen edo kategoriatako turismo-ostatuetan, mugikortasun urria duten pertsonak lehentasunez erabiltzeko, berrogeita hamar ostatuko edo zatikiko bat erreserbatuko da. Horrez gain, hamar plazako edo zatikiko batean, komunikatzeko zailtasunak dituzten pertsonak ostatu bat autonomiaz hartzeko beharrezkoak diren laguntza teknikoak egongo dira.

2.– Eraikinek eta espazio libreek eranskin honetan eta hiri-inguruneko irisgarritasun-baldintza teknikoari buruzko II. eranskinean ezarritakoa beteko dute.

3.– Hotel eta pentsioetan erreserbatutako logekek eta bertan erantsitako bainugekek, gurpil-aulkia erabiltzen duten pertsonentzako etxebizitzei buruzko atalean logela eta bainugeletarako ezarritakoa beteko dute.

4.– Turismo-apartamentuetan eta oporretako turismo-etxebizitzetan erreserbatutakoek gurpil-aulkia erabiltzen duten pertsonentzako etxebizitzei buruzko atalean ezarritakoa beteko dute.

5.– Jendearentzat zabalik dauden turismo-ostatuetan komunikatzeko zailtasunak dituzten pertsonentzat erreserbatutako logela guztiek, sarbidea ematen duen atean, argizko txirrin bat izango dute entzumen-galera duten pertsonak kanpoarekin kontaktua eduki ahal izan dezaten.

6.– Era berean, kontuan izan behar da argizko abisua logelako gela guztietan jaso ahal izango dela. Horrela, logelak bainugela barne hartzen badu, dei-hargailu bat instalatu beharko da bertan.

10.4.– Etxebizitzek eta turismo-ostatuez bestelako egoitza-erabilerarako eraikinak.

Eraikin hauek beren berariazko araudiari jarraiki eraenduko dira (baldin badago) gelen edo ostatuen eremuak dagokienez, turismo-ostatuen erabilerarako kontuan hartutako baldintza berberetan erreserbak egitearen kaltetan izan gabe.